

Gorka Urbizu

MUSIKARIA

Altxorraren bila

Txikitan inoiz jolastu ginen horretan, batez ere uda partean. Ez usu ere, prestaketa lan nekezak eskatzen zituelako batik bat, eta guk berehalako dibertimendua nahi, noiz eta udako oporretan. Baina bai, akorduan dut inoiz ibili ginela *altxorraren bila*. Lagunartea bi taldetan banatu eta garaikur sinboliko bat aukeratu behar izaten zen lehenengo –talde bakoitzeko bat–; herriko ezein zirrikitutan ostentzeko. Ondoren pistak idatzi behar ziren paper txatal banatan eta horiek ere herrian barna ezkutatu, lehenengoa izan ezik. Azken hori arerioari luzatzen zitzaion eta hortxe hasten zen dema (*bat, bi, hiru... ya!*), pistak banaka ebazten joan eta altxorra nork lehenago kausituko. Lasai, hau ez da nostalgia ariketa bat, baina gomuta ondo datorkit, halatsu sentitu izan bainaiz, disko dendara joan izan naizen azken aldietan.

Bai, nik ere *myspace* arakatzten orduak eta orduak ematen ditut; *Amazon* edo *interpunk.com*-en hilabetero egiten ditut eskaerak; *i-Tunesen online* erosi eta *P2P* zein *blogspot* musikalen abantailak probatu ditut. Baina musika eskuratzeko derrigorez ordenagailura jo beharrak amorru pittin bat ere ematen dit eta aizue, zenbaitetan modu tradizionalen erosteko gogoia ernetzen zait: kaleko disko-dendara



ALEX LARRETXI

joan, CDa erosi eta autoan lehenengo entzunaldiaz gozatu etxera bueltakoan. Hain larria al da?

Erosketa modu “tradizional” hau, teoriarik bilatzen errazak izango diren diskoetarako uzten dut, bitxikeriak sarerako lagata. Esan nahi baita, ez naizela ni saltzaile gajoa nahastu nahian jokatzeko duten horietakoa, ez eta euren sasi-jakituria musikala harro erakusten dutenetakoa ere, auzoko Megadendan *Rockdeluxek* aipatzen duen azkeneko single eskuraezina exijituz.

Utzikeria nagusi, disko-denden apaletan: hauts asko eta interes gutxi. Direnak eta ez direnak egin behar izan ditut berriki, euskal talde baten DVD bat eta *Geffen* multinazionaleko disko ezagun bat lortzeko. Dendara behin eta berriz itzuli eta hilabeteren bueltan berdín segitzen dut, diskorik eta dendariaren azalpen taxuzkorik lortu gabe. Gero esango dute ez dela diskorik saltzen! Aukera ematen al dute ba? Umetan altxorraren bila jolasten ginenekoak akordatu naiz orduan. Paperean idatzitako pista bilatu, ebatzi, eta hurrengoaren peskizan joatera behartuta banengo bezala sentitzen naiz (*bat, bi, hiru... ya!*). Eta beldur

naiz dema honetan ez ote nauen azkenean arerioak irabaziko.

Asperdurak, alegia. ■

«
Dendara behin eta berriz itzuli
eta hilabeteren bueltan berdín
segitzen dut, diskorik eta
dendariaren azalpen taxuzkorik
lortu gabe. Gero esango dute ez
dela diskorik saltzen!
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Gara Espainiako Futbol Liga Profesionalean. Osasunari dagokionez, bere futbol

zelaia, El Sadar, Reyno de Navarra berrizendatu zutenetik ez du parean jo. Buruko minekin hasi eta artatze intentsiboko salara eraman zuten. Kuko Ziganda etxeko sendagilea kanporatu eta sona handiko espainiar bat ekarri dute, Camacho izenekoa, internazionala bera, Espainiaz gain mundu asko korritutakoa. Tratamendu berria eman eta asmatu ezinik dabil, igandero errezeta aldatu eta geroz eta okerrago dago eria. Oraindik ez da koman sartu baina martxa honetan gabonetarako duten

Azken biak

otsaila bezain hotza urtarrila, etxean arazoak aski ez eta Espainiako *Epoca* astekariak portada eskaini dio: *ETA a la caza del Athletic*. Zenbait jokalariek argazkiz itxuratu du kioskotan salmenta hirukoiztu nahi lukeenak. Horrela saritu nahi diote bere zuzendaritzak Raxoiri egin erregalia. Euskal Herritik kanpo jokatzeko zaila baldin bazuten orain artean, aurrerantzean metalezko burukoak eta larruzko belarri estalkiaz ari beharko dira. Euskal Liga Profesionala hurbil daukagu. Euskal Selekzioa ere bai. ■